

Donostian, 1997ko uztailaren 18an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
 E. Knörr, buruordea,
 P. Goenaga, idazkaria,
 J. A. Arana, diruzaina,
 P. Altuna,
 J. L. Davant,
 X. Diharce,
 F. Krutwig,
 E. Larre,
 J. M. Lekuona,
 P. Ondarra,
 P. Salaburu,
 J. San Martin,
 I. Sarasola,
 J. M. Satrustegi,
 eta P. Zabaleta
 euskaltzainak
 eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-
 tzailea,

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioa-
 ren jauregian, 1997ko uztailaren 18an,
 goizeko hamarrak eta hogeitabostean,
 eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hi-
 leroko batzarrari. Bilduen izenak ezke-
 rraldeko zutabeen jasoak ageri dira. Ezin
 etorria adierazi dute, berriz, honako eus-
 kaltzain hauek: P. Charritonek, X. Kin-
 tanak, Tx. Peillenek, A. Urrutiak eta L.
 Villasantek.

Aurreko agiria onartzea.

Aurreko hileko agiriri inork oharrik egin
 ez dionez, ontzat eman da.

Euskaltzainburuaren hitzak.

Euskaltzainburuak hartu du lehenbizi hi-
 tza. Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko
 Kutxak L. Villasanteri eman dioten saria
 dela eta, sari emate ekitaldia atzeratu egin
 dela. Irailaren 10ean izango dela.

1. Hizkuntza arauak.

1.1. Exonomastika: Latin eta greziar pertsona-izen klasikoaren zerrenda onartzea.
 Euskaltzainburuak Andolin Eguzkitzari eman dio hitza batzordeak prestatutako txostena
 irakurtzeko. Ondoren Gidor Bilbao jaunak hartu du hitza: zerrenda laburra eskatu omen
 zitzaien aurreko bileran. Hala eraman omen zuten batzordera, baina gero zerrenda hori
 luzatu beharra ikusi zela esan du. Nolanahi ere, zerrendari luzeegi iritiz gero, labur
 daiteke geroago.

Lehen txostenari egin zaizkion aldaketak honako hauek izan dira, Bilbao jau-
 naren arabera: lehen grekozko izenetan goi mailarako eta ikerlanetarako latina hartzen
 zen iturriztat, orain grekozko nominatiboa da proposatzen dena. Horrela, *Likurgus* ez,
Likourgos baizik. A. Eguzkitzaren arabera, *Likurgos* ere zilegi litzateke, erdibide gisa.

Haritschelhar jaunak adierazi du izen ezezagunetarako latina eta grekoa hartu di-
 tuela batzordeak, ezagunetarako, berriz, espainera hartu dela.

Eztabaidaren ondoren, eta proposamenaren onarpena nolabait bideratzeko, zatikako
 galderak jarri dira mahai gainean. Lehenbizi, ea izen ezagunen eta hain ezagun ez di-

renen artean bereizketarik egin behar den ala ez. Esate baterako, *Ammianus*-ekin edo *Ciceron*-ekin nola jokatu behar den. Bereizketa egitea onartu da.

Bigarren, hain ezagunak ez diren izenak jatorrizkotik hurbil egon behar badute, nola jokatu latinezkoekin eta grekozkoekin? Latinezkoetan ez litzateke problemarik izango. Grekozkoetan, bai, antza. Adibidez, *Alkaios* bezalakoekin zer egin?. Hau dela eta, El-huyar-eko zerrenda aipatu da. Zerrenda hau onartzeak zer arazo izango lukeen aztertu beharko omen litzateke. Ibon Sarasolak galdegin du ea Euskaltzaindia prest egongo litzatekeen zerrenda hori ontzat emateko, behar diren egokitzapenak eginez. Aipatutako zerrenda hori onartzeak nahiko bidezko dirudi. Nolanahi ere, Satrustegi jaunak proposatu du batzordeño bat eratzea, honek egin dezan proposamen zehatza. Batzordekideek hitz eman dute irailean bilduko direla eta hurrengo bilerara ekarriko dutela azken proposamena.

1.1. *Hiztegi Batuko hautsezin-iguzki* zerrenda onartzea.

Gaurko zerrendari dagozkionak eztabaidatzen hasi aurretik, Ibon Sarasolak aurreko bileran zintzilik utzitakoak gogorarazi ditu.

Gorbata hitza dela eta, tradizioa ez da erabat argia, baina gaurko joera *gorbata* formaren aldekoa litzatekeela esan du. Hori da, hortaz, batzordearen proposamena. Hala onartu da.

Harmonizazio eta *harmonizatu* hitzak sarrarazteko egin zen proposamenari buruz, batzordearen iritziz, alemanez ere horrelakorik ez denez, hobe da hitzok bigarren itzulirako uztea. Onartu da proposamena.

Gauza bera egin da aurreko bileran mahaigaineratutako *hainbanatu* hitzarekin. Hau ere bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Ondoren, *hautsezin-iguzki* zerrendari egindako oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak. Oharrak A. Urrutiak, X. Kintanak eta E. Knörr-ek aurkeztu dituzte.

Urrutia jaunaren oharretan ematen diren *hazaita*, *hazama*, *hegalkin*, *hipotekatzaile*, *hutsal(du)/hutsalgarri/hutsalkor*, *ibilge(tu)* eta *igortzaile* bigarren itzulirako uztea proposatu du batzordeak eta hala onartu euskaltzainek.

Hazibide eta *haziera* hitzak direla eta, bi adiera ematea iradokitzen da oharrean. Sarrera zerrendan dagoen bezalaxe uztea egokiago ikusi da adieretan eta sartu gabe.

Helmen sarreran *hemenean* ere aipatzea on litzatekeela dio oharrak. "Hemenean jarri, egon" azalpen gisa sartzeari onartu da.

Heredatu hitza dela eta, *jarauntsi*-ri lehentasuna ematea eskatzen da. *Jarauntsi* gehitzea onartu da.

Heredero-ren baliokide ez omen da *oinordeko*. Zuzenbide arloan *jaraunse* eta *oinordeko* bi gauza desberdin omen lirateke. Ez da onartzen oharra, 'suesor' esateko *ondorengo* bai baitugu. Horrenbestez, *heredero*-ren sarrera dagoen dagoenean uzten da.

Herentzia-ren kasuan, "jaraunspena, ondoriotasuna" gehitzea onartu da.

Herri-ren azpisarrera gisa ematen direnez gainera, ohargileak, beste batzuk ere ezarzteak eskatzen du. Ez da ikusten honen premiarik eta, horrenbestez, ez da onartzen.

Heterogeneo eta *hezur* sarrerei buruzko oharrak ere ez dira ontzat ematen.

Histu sarrerari, oharrean eskatzen denaren arabera, honako hau gehituko zaio: “kore bizienak histen dira eguzkitan”.

Hitez-hitzezko(tasun) sartzeari xehetasun gehiegitan sartzea litzatekeela irizten dio batzordeak. Horrenbestez, bazterrerara utzi da eskaria.

Hizpa(tu)/hizpaketa sartzea ez da onartu. Hitz hauen arrastorik ez omen dago testuetan.

Horrenbestez lokailuari sarrera ematea onartu da. Baina *horretarako* bezalako hitz batentzat ez litzateke lekurik izango hiztegian.

Ibaiertz eta *idazpen* hitzak sartzea onartu da.

Idoi-ren sarreran bi adiera bereiztea onartu da: 1. 'zingira'; 2. Ipar. 'iraina'.

Ifrentzu-rentzat adibideren bat eskatzen da. Honako ohar hau gehitzea onartu da: 'txanpon, oihal, ... baten atzeko aldea'. Bestalde, aurreko zerrendan *infrentzu* ageri da, *-n*-rekin. Zuzendu egin behar da.

E. Knörr-en oharretara pasatuz, *hautu* sarreran bi puntu ezartzea onartu da: 1. A. hautu, haututzen, ...; 2. Iz. ... Baina *hautuz*, *hautuzko* azpisarrerak lekuz kanpo omen daudelakoari ezetz iritzi dio batzordeak eta ez da onartu Knörr-en oharra.

Hauzu hitza sartzea onartu da, honako ohar honekin: *hauzu** e. *haizu*.

Hazi hitzean aditza eta izena izan daitekeela aipatzea onartu da.

Haztatu eta hedamen hitzak zerrendan dauden bezala uztea erabaki da.

Hegalda izena sarrarazteko eskaria ez da onartu, baina *hegaldatu* aditzaren erregimena zein den adieraztekoa bai: “da” aditza dela esango da.

Hegatu sarreran ere zein erregimen duen adieraziko da: *ez da* eta *du*, oharrean eskatzen zen bezala, *da* soila baizik.

Hein hitzaren izentasuna hobeki markatzeari buruz, hori, dagoeneko jasoa dagoela esan da.

Herio sarrera dagoen bezala uztea erabaki da.

Heriosuhar hitzaren ondoan, oharrean aipatzen diren adibideak ezarriko dira eta adizlagun dela ere esango da.

*Herts*i, zerredan dagoen bezala utziko da.

Zerrendan ageri ez den *hilberri* hitzak ekarri du ondoren eztabaida. Izen gisa jasotzea onartu da. Hala ere, *hilberri* eta *hil berri* ('Norbaiten hilberria' vs. 'norbait hil berri da'). *Hiletsi* eta *hilgarrriki* sartzeari buruzko eskaria ez da onartu. *Hiliki* bigarren itzulirako uztea onartu da.

Hola eta *holatsu* hitzei buruz, oharrak *honela*, *horrela* eta holakoak hobestea eskatzen zuen. Bergara ondoko taulan *honela*, *horrela*, ... datorrela aipatu du Knörr jaunak. Bateko eta besteko arrazoiak entzun ondoren, botoetara jo da. *Hola*, *honela* eta *horrela* parekotzat ematearen alde bozkatu dute hamabost euskaltzainek.

Hona hemen-en ondoan *hona non* ere sartzea ontzat eman da. *Horra hor*-en ondoan *horra non* sartzea, berriz, ez da onartu. *Hortaz*-i dagokion adibidean, berriz, lokailu horren aurrean koma bat ezarriko da.

Hotsandiko eta *iaio* hitzei buruz Knörr jaunak egindako oharra (azken hitz honen kasuan hiru silaba eginez irakurtzeko arriskua aipatzen da) ez dira ontzat eman.

Iberiera eta *iberiko* hitzak sartzea onartu da.

Bigarren itzulirako utzi dira *idorrean* (*diru idorrean*) sarrera eta *iguriki* izen izan omen daitekeelako kontua ere.

Igeri-ren sarreran, oharrean 'ibaia igeri igaro' barik 'ibaia igeri zeharkatu' ezartzea onartu da, kakofonia saihesteko. Dauden-daudenean uztea erabaki da, berriz, *igarle* eta *igogailu* sarrerak.

Xabier Kintanak aurkeztutako oharrei dagokienez, *horma* h-rik gabe ematea ez da onartu.

Aurreko ohargileaz esandakoaren arabera, *iaio* hitzari buruzko oharra ez da onartu. Ez da onartu *igongailu* sarrerari buruzkoa ere. *Igongailu* hitza Bizkaian asmatua ez (oharrean aldarrikatzen den bezala), baizik P. Mujikak asmatua omen da. *Igogailu* bere horretan utzi da, hortaz.

Idazti-ri buruzko oharra dela eta, sarrera aldatzea erabaki da. Honela gelditu da: *Idazti, h. liburua*.

Odoren, zerrendan eztabaidarako utzitako sarreraren banan-banako azterketari ekin diote euskaltzainek.

Herskailu hitzak "galdetzeko" oharra zekarren. Egin beharreko galdera hori ez da egin, nonbait, eta hurrengo bilerarako argitzekotan gelditu da.

Hezetu hitzak "eztabaida" oharra zuen, baina ohar hori zuzena ez dela erabaki da eta bertan behera utzi da. *Hontz* hitza ere modu berean markatua zetorren zerrendan. Hala ere, Kintana jaunaren oharra gorabehera, forma horrexen aldekoa izanik, ez da eztabaidan jarri hitz hori.

Hozkailu /*hozgailu* auziari buruzko eztabaidan bidezkoztat eman dira X. Kintanaren arrazoiak eta *hozkailu* forma onetsi da.

Hozpera/*hozbera* eztabaidan *hozbera* forma egokiagoztat eman da.

Idatzaldi/*idatzaldi* eztabaidan, E. Knörr-en oharriari buruzko datuak kontrajarri zaizkio. Batzordea *idatzaldi* formaren aldeko agertzen da eta forma hau hobestea erabaki du Euskaltzaindiak. Honela izango da oharra: *Idatzaldi, e. idatzaldi*.

Iduri hitzaz, *irudi* hobestea erabaki da: *Iduri iz., Ipar. h., irudi*. Eta "iduri du eri dela" adibidearen baliokidea honela ematea: "badirudi eri dela".

Igan /*igo* eztabaidan, biak parekoztat ematea erabaki da. Hortaz, "h." ezabatuko da. *Igon* sarrerarik ez dela dio X. Kintanaren oharra. Sartzea erabaki da: *igon* e. igo*.

Igaziaz eztabaidara bere arrazoiak ekarri ditu X. Kintanaren oharra. Batzordearen ustez, hala ere, gauzak ez bide daude erabat argi eta, badaezpada, erabakizun utzi da hurrengo bilerarako.

2. 1988ko Aurrekontuen onarpena.

Euskara Batuko batzordearen aurrekontua bikoiztu beharra aipatu da, bilkurak ere bikoiztu egin baitira. Gainerakoan, inork ere oharrik ez zuzenketarik eskaini ez duenez, ontzat eman dira aurrekontu hauek.

3. Eskuartekoak.

3.1. Abbadieren kongresua.

Lizundia jaunak A. Abbadieren omenez egingo diren ekitaldien programa eta prestatikizunen xehetasunak eman ditu. Euskaltzainak bereziki gonbidatuak daudela esan du. Hala ere, bakoitzak, dagokion orria erabiliz, izena eman behar duela.

4. Azken ordukoak.

Xabier Kintanak, gutun baten bidez, bilerara etortzerik izan ez duenez, gure artean berrikitan izandako zoritxarrezko gertaerak direla eta, Euskaltzaindiak ere zerbait esan dezala eskatzen du. Euskaltzainburuak dio Euskaltzaindia ez dela horretan sartu behar, nahiz eta euskaltzain bakoitzak, berekasa, baduen bere iritzia azaltzeko eskubide osoa. Iritzi bereko agertu dira beste zenbait euskaltzain ere. Horrenbestez, eskaria ez da kontuan hartu.

Ordubiak laurden gutxitan eman da amaitutzat batzarra.

Euskaltzainburuak,
Jean Haritschelhar

Idazkariak,
Patxi Goenaga